

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Mañuetako Udala

Ayuntamiento de Baños de Ebro/Mañueta

2016





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak	9
III.2 Langileria.....	9
III.3 Transferentziak eta diru-laguntzak	10
III.4 Berankortasuna eta bestelako alderdiak	10
IV. FINANTZA ANALISIA	11
V. URTEKO KONTUAK.....	13
ERANSKINAK	17
A.1 Fiskalizatutako entearen izaera	17
A.2 Aurrekontua eta urteko kontuak	17
A.3 Zegak, tasak eta bestelako sarrerak	18
A.4 Transferentzia eta ondareko diru-sarrerak.....	18
A.5 Langileria-gastuak.....	19
A.6 Ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa.....	20
A.7 Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	21
A.8 Aurrekontuko zordunak.....	21
A.9 Aktibo ez korrontea, ondarea eta zorpetzea	22
A.10 Finantza, ondare eta aurrekontuko adierazleak.....	23
ABREVIATURAS.....	25
I. INTRODUCCIÓN	27
II. OPINIÓN	28
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	28
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	28
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	29
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos.....	29
III.2 Personal.....	29
III.3 Transferencias y subvenciones.....	30
III.4 Morosidad y otros aspectos.....	30
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	31
V. CUENTAS ANUALES.....	33



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ANEXOS.....	37
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	37
A.2 Presupuesto y cuentas anuales.....	37
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	38
A.4 Ingresos por transferencias y patrimoniales.....	38
A.5 Gastos de personal.....	39
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	40
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas.....	41
A.8 Deudores presupuestarios.....	41
A.9 Activo no corriente, patrimonio y endeudamiento.....	42
A.10 Indicadores financieros, patrimoniales y presupuestarios.....	43

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 22a
Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2018



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AFA	Arabako Foru Aldundia
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala
FOFEL	Arabako Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Mañuetako Udalaren 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako aurreko fiskalizazio lana 2001eko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren Aurrekontuaren likidazioa, Egoeraren balantzea, Galera-irabazien kontua eta Oroitidazkia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Mañuetako udalerriak 308 biztanle ditu 2016ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera. Uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua Arabako Errioxako Uren Partzuergoak ematen du eta hiri hondakinen kudeaketa eta gizarte zerbitzuak Guardia-Arabako Errioxako kuadrillak modu mankomunatuan ematen ditu; berebat, laguntza ematen du hirigintza, kultura eta administrazioko kudeaketan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Mañuetako Udalak zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. 2016ko abenduaren 31ko Balantzean 1,2 milioi euroren Ibilgetuko saldoa barne hartu da; Udalak, baina, ez du Ibilgetua osatzen duten elementuen xehetasunik eta honenbestez, ezin zehaztu izan dugu 2016ko abenduaren 31ko udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen den (ikus A.9 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Mañuetako Udalaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- 2016ko Likidazioa eta Kontu Orokorra Alkateak eta Udalbatzak 2017ko abuztuan eta azaroan onartu zituzten; ordea, arautegiak finkatutako epeak martxoaren eta uztailaren azken egunean amaitzen dira.
- Udalak ez zituen erregistratu 2016ko urteko zenbait diru-sarrera (OHZren kobratzeko likidazioak eta tasa bat) eta gastu (aseguru sozialak, Kuadrillari egindako ekarpenak eta zaharren egoitza hobetzeko lanak); gainera, zuzentzeko dago 2016ko abenduaren 31ko diruzaintzako saldoa. Egitate hauen eragina guztira 10.278 eurorena da.
- Udalak erosketa guztiei dagokienez aurrekontuaren egikaritze fase guztiak metatu zituen (ADO), nahiz 2016ko 4 erosketa nagusietan kontularitzan bereizirik erregistratu behar ziratekeen esleipenak egin ziren (AD). Erosketa nagusiak arautu behar lirateke, horien esleipena formalizatu eta kontabilizatu.
- Udalak ez zuen 2016 baino lehenago azpiegituretan egindako inbertsioen saldoaren xehapenik (5,5 milioi euro) eta saldoa ez aktibatzeko aukera baliatu zuen; ordea, Oroitidazkian eman behar zukeen horren berri.
- Ibilgailuen gaineko zergaren tarifak 2004an onartu ziren eta gerora % 2 gehitu ziren; aldaketa hori, baina, ez zen zuzen izapidetu.
- 2016 baino lehenagoko kobratzeko ordainagiriak, 20.748 euroren zenbatekodunak, ez ziren premiamendu bidez eskatu, ez zirelako AFaren derrigorrezko diru-bilketa agentziara bidali behin borondatezko kobrantza aldia amaitua zela. Gainera, Udalak urteko itxieraren karira zordunen kontularitzako saldoak alderatu behar lituzke ordainagiri eta likidazioen kontrol sistema osagarrikoekin.

III.2 LANGILERIA

- ALHAOra igorritako lanpostu zerrenda ez dator bat onartutakoarekin; zuzendu egin behar da, beraz, akats hori. Dedikazio partziala duen lanpostu batean ez da ezaugarri hori adierazten. Akordioak, gainera, aldi baterako lan kontratu bat jasotzen du eta LZn izaera finkoa duten lanpostuak soilik jaso daitezke.
- 2016ko abenduan bi langilek LZn aurreikusitako gabeko egiteko iraunkorrak betetzen ziharduten, 2010 eta 2013an egindako aldi baterako lan kontratuekin, urtero luzatutakoak. Egoera hau zuzentzea komeni da eta horretarako LZ aldatu beharko litzateke edo zerbitzuak berrantolatu.

- Errenta eta atxikipenen urteko aitortpena (190 eredu-orria) akatsekin egin zen eta ez zituen 22.551 euroren ordainsariak barne hartu.
- 2016ko azaroan udal aretoak garbitzeko amaiera datarik ez zuen aldi baterako lan kontratu bat izenpetu zen. Ez dago jasota langilea hautatzeko inongo prozedurarik gauzatu zenik.
- 2016ko abenduan langile bat kontratatu zen lanpostu huts bat betetzeko eta horretarako baliatu zen prozedurari iragarki oholean eman zitzaion publikotasuna Lan-poltsa modura erabili izatea eta kontratuak izan dezakeen iraupena aurreikusita egokiagoa zatekeen deialdia ALHAOn argitaratzea. Gainera, prozesuak titulazio eta ikastaroak soilik balioztatzea aurreikusten zuen, aurkeztutako agirien ziurtagiririk batere ez dagoela, eta gainera, bi izangai kanporatu egin ziren udalerrian bizi ez zirelako, betekizun hau eska ezina izanik.

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Biasteri-Arabako Errioxako kuadrillak mankomunaturik ematen ditu oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta zabor-bilketa zerbitzua eta Udalari laguntza ematen dio hirigintza, gizarte-laguntza, kultur jarduera eta agirien artxiboko lanetan. Udalak Kuadrillari egindako ekarpenak 2. eta 4. kapituluetan erregistratu zituen, guztira 17.877 euroren zenbatekoarekin. Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauak eskualde bakoitzeko udalekin lankidetzara aurreikusten du; ez da, baina, Udalean ageri zabor-bilketa zerbitzua mankomunaturik emateko erabakia eta gizarte-zerbitzuei dagokienez, 2017an horren gaineko behin-behineko erabakia gauzatu da. Berebat, artxibategiko zerbitzuetan eta jarduera soziokulturaletan laguntza gomendatzen duten erabakiak ere ez dira jaso.

III.4 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak ez ditu ordainketa epeei buruzko nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egiten.
- Toki erakundeak gardentasun eta informazio publikorako irispideari buruzko araudira egokitzeko prozesua 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen; Udalak, ordea, ez du halakorik gauzatu. Informazio ekonomikoari dagokionez, publikotasuna eman behar zaie honako hauei: aurrekontu eta kontu orokorrei, aurrekontuaren egonkortasun eta iraunkortasunari buruzko txostenei, baliatutako kontratazio moldeen gaineko estatistika datuei, zinegotzien ondasun eta jarduera aitortpeni, emandako diru-laguntzei, gauzatutako hitzarmen eta kudeatzeko gomendioei eta Udalaren jabetzako diren ondasun higiezin zerrendari.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua:

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2014(*)	2015(*)	2016	2014(*)	2015(*)	2016
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	129	130	117	396	417	381
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	142	159	151	437	512	489
Ondare sarrerak (5. kap.).....	28	62	33	87	201	109
A. Diru-sarrera arruntak	299	351	301	920	1.130	979
Langile gastuak (1. kap.).....	69	73	71	213	236	232
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	145	154	142	445	494	463
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	11	11	12	33	35	39
B. Funtzionamendu gastuak	225	238	225	691	765	734
Aurrezki gordina (A-B)	74	113	76	229	365	245
- Finantza gastuak (3. kap.).....	1	1	1	5	4	2
Emaitza arrunta	73	112	75	224	361	243
- Maileguz amortizazioa (9. kap.).....	29	29	17	90	94	56
Aurrezki garbia	44	83	58	134	267	187
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	17	4	-	52	12	0
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(34)	(37)	(33)	105	118	106
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(17)	(33)	(33)	(53)	(106)	(106)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)..	56	79	42	171	255	137
Diruzaintza geldikin likidoa	129	188	210	396	603	682
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina	129	188	210	396	603	682
Zorpetzea 12.31n	128	98	81	393	316	263

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: Egonkor eusten diote aztertutako epean, transferentziek gora egin dutelarik, baina berezko diru-sarrerak behera:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 9 egin dute behera, nagusiki, EIOZek 2014an eragindako sarrera maila handiaren ondorioz. 2015eko igoera 3. kapituluko ezohiko diru-sarrerak eragin dute. Zerga eta tasen tarifak ez dira aldatu aztertutako aldian.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 6 egin dute gora, partaidetzak itunpeko zergetan antzeko ehunekoan gora egitearekin.

Funtzionamendu gastuak: Ez dute hauek ere aldaketa esanguratsurik, langile eta diru-laguntzetan igoera txikiak izan dituzte, osagairik garrantzitsuen diren ondasun eta zerbitzuen kontratazioak izan duen beheraldiarekin berdindu direnak.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Langile gastuak:** % 3,2 egin dute gora 2016an 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren itzuleraren, 1.706 eurorena, eta % 1eko ordainsari igoeraren ondorioz.
- **Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak:** % 1,5 egin zuten behera Kuadrillari egindako ekarpenen zenbatekoa zabor-bilketa zerbitzuagatik murriztu izanaren ondorioz eta 2016an gastuen 4. kapituluaren erregistratzen hasi izanaren ondorioz; ordea, 2016an konponketa eta zaintza gastuek ere gora egin dutela ikusi da.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 11ko igoera eskualdeko Kuadrillari egindako ekarpenek eragin dute, zabor-bilketa zerbitzurako egindakoek.

Aurrezki gordina eta garbia: 2014an sarrera arrunten % 25 egiten zuen aurrezki gordinak bere horretan eusten dio, eragiketa arruntetan aldaketarik izan ez delako. Finantza zamak behera egin du 2016an aurreko urtean aurrerakin bat kitatu ostean; honenbestez, aurrezki garbiak hobera egin du.

Kapital eragiketen emaitza: Inbertsio-ahaleginak egonkor iraun du, lehenengo bi urteetan aldunditik diru-laguntzak eskuratu baitira eta inbertsio garbiak oso-osorik sortutako aurrezki bidez finantzatu baitira.

Diruzaintza geldikina: 2014ko abenduan sarrera arrunten % 43 egiten zuen eta hurrengo bi urteetan sortutako aurrezkiak 2016ko abenduan sarrera horien % 70ean jartzen du; kopuruak hirurtekoan egindako inbertsioen zenbatekoa gainditzen du.

Zorpetzea: Udal zorpetzeak 2016ko abenduaren 31n sarrera arrunten % 27 egiten zuen.

Ondorioa: Eragiketa arrunten egitura ez da aztertutako aldiaren aldatu eta 2016an sarrera arrunten gainean % 25eko aurrezki gordina sortu du. Zorpetzea eta geldikina antzekoak ziren epe hasieran; azken honek, baina, hobera egin du sortutako aurrezkiaren eraginez eta zorpetzea urritu egin da mailegurik kontratatu ez delako: honenbestez, 2016ko sarrera arrunten % 27 eta % 70 bitartean kokatzen da.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 38/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, Udalaren kontu-hartzailtzak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. Honi dagokionez, bete da aurrekontuaren egonkortasun printzipioa 2016an 41.149 euroren eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita; izan ere, 2015eko ekitaldiarekiko zenbakarriak diren gastuek behera egin dute eta zor publikoak sarrera arrunten % 27 egin dute.



V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB.	KOBR.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak	A.3	97	-	97	86	84	2	89
2.- Zeharkako zergak	A.3	20	-	20	5	5	-	25
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	32	-	32	26	26	-	81
4.- Transferentzia arruntak	A.4	142	-	142	151	151	-	106
5.- Ondare sarrerak	A.4	33	-	33	33	32	1	100
6.- Inbertsio errealeen besterentzea	-	2	-	2	-	-	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak	-	326	-	326	-	-	-	-
9.-Finantza pasiboak	-	20	-	20	-	-	-	-
SARRERAK GUZTIRA		672	-	672	301	298	3	45

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak	A.5	83	-	83	71	71	-	86
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	A.6	165	-	165	142	141	1	86
3.- Finantza gastuak	-	3	-	3	1	1	-	33
4.- Transferentzia arruntak	A.7	21	-	21	12	12	-	57
5.- Kreditu glob. eta bestel. ustekabekoak	-	6	-	6	-	-	-	-
6.- Inber. errealak	A.6	374	-	374	33	33	-	9
9.-Finantza pasiboak	A.9	20	-	20	17	17	-	85
GASTUAK GUZTIRA		672	-	672	276	275	1	41

SARRERAK - GASTUAK

0 **-** **0** **25** **-** **-**

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak	A.8	22	-	2	20
Hartzekodunak	-	2	-	2	-

AURREKONTU ITXIEN EMAITZA

-

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak	301
Aitortutako obligazioak	276
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	25
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	25
Finantziario desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	25



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA

Diruzaintza geldikina 2016.1.1ean	185
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza	25
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak	-
<u>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2016.12.31-N</u>	<u>210</u>
Diruzaintza	213
Aurrekontuko zordunak	23
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-
Aurrekontuzko hartzekodunak	(1)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(7)
Aplikatzeko dauden kontu-sailak	-
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(18)
<u>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2016.12.31-N</u>	<u>210</u>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	-
<u>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</u>	<u>210</u>
<hr/>	
ZORPETZEA 2016.12.31-N	81



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2016	PASIBOA	ERANSKINA	2016
AKTIBO EZ KORRONTEA		1.187	ONDARE GARBIA		1.316
Erabilera orokorrera emana.....	-	-	Ondarea	-	190
Ibilgetu ezmateriala.....	-	-	Ekitaldi itxien emaitza	A.9	1.226
Ibilgetu materiala.....	A.9	1.187	Ekitaldiaren emaitza.....	-	(100)
			PASIBO EZ ARRUNTA	A.9	62
ZORDUNAK		5	PASIBO KORRONTEA		27
Indarreko eta itxitako ek. aurrekon.....	A.8	23	Indarreko eta itxitako ek. aurrekon.	-	1
Kaudimengab. zuzkid.	A.8	(18)	Kred. erakun. zorrak	A.9	19
			Administrazio publikoak	-	2
FINANTZA KONTUAK	A.8	213	Jasot. bermeak eta gordailuak	-	5
AKTIBOA GUZTIRA		1.405	PASIBOA GUZTIRA		1.405

2016-KO EKITALDIAREN ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan
Zerga eta hirigintzako diru-sarr.	106
Zergak	91
Tasak	15
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	151
Salmentak eta zerbitzuen emakida	3
Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.	42
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	302
Langileria-gastuak	(72)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(56)
Gizarte zamak.....	(16)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	(12)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(143)
Ibilgetuaren amortizazioa	(172)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(399)
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA	(97)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(3)
EKITALDIAREN EMAITZA	(100)



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZATUTAKO ENTEAREN IZAERA

Mañuetako Udala toki erakundea da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legeak arautzen duena, 57/2003 Legeak aldarazitakoa, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoak eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak; baita 2/2016 Legeak ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

Aurreko arautegiak udalek ematen dituzten eskumen eta zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, hiri garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur eta kirol jarduerak.

Ekitaldian ezargarria zen ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan zen:

- 3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 56/2015 Foru Dekretua, Arabako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

2016ko urteko kontuak izan dira 56/2015 Foru Dekretuaren arau esparruarekin formulatu diren lehenengo kontuak. Horregatik, balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak eta informazio alderagarria duten gainerako egoerek ez dituzte aurreko ekitaldiari buruzko datuak jasotzen; ordea, oroitidazkian 2016ko hasierako saldoen eta 2015eko itxirakoan arteko alde nagusien berri ematen da (ikus A.9 eranskina).

A.2 AURREKONTUA ETA URTEKO KONTUAK

2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2016ko martxoko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean 2015eko azaroan eta Arabako Aldizkari Ofizialean 2015eko martxoaren 2an eman zen argitara. Behin betiko onetsitako aurrekontua 2016ko urtarrilaren 15ean argitaratu zen GAOn. Sarrera eta gastuen aurreikuspenak, hurrenez hurren, % 45 eta 41ean bete ziren, inbertsioen programa izandako desbideratzeen eraginez.

Aurrekontua ez da 2016an aldatu.

Udalaren 2016ko ekitaldirako Aurrekontuaren likidazioa Alkatetzaren Dekretu bitartez 2017ko abuztuaren 31n onartu zen eta Kontu Orokorra Udalbatzak 2017ko azaroaren 13an onartu zuen.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2016ko ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

		Euroak milakotan
KONTZEPTUA		Diru-sarrerak
Landako ondasun-higiezin gaineko zerga	(*)	14
Hiriko ondasun-higiezin gaineko zerga	(*)	55
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga		15
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: lurralde eta estatuko kuotak 2015.....		2
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA		86
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.....		5
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA		5
Zabor-bilketa		12
Hornidura eta telekomunikazio enpresek lurzorua, zorupea eta lurgainaren erabilera.....	(*)	4
Udako igerilekuak		3
Udal eraikinetako kalteengatik aseguru-kalteordaina.....		6
Gainkargu eta interesak		-
Bestelako txikiago batzuk.....		1
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA		26
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA		117

(*) 2016an kobratutako ordainagiriak kontabilizatu ziren

Udalak Arabako Errioxako Uren Partzuergoari uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeaketa laga zion 2004an; hori dela eta, ez dira dagozkion tasak barne hartzen aurreko taulan.

A.4 TRANSFERENTZIA ETA ONDAREKO DIRU-SARRERAK

Hona hemen 2016an transferentzia eta diru-laguntza korranteek eragindako sarrerak:

		Euroak milakotan
ERAKUNDEA ETA KONTZEPTUA		Diru-sarrerak
Arabako Foru Aldundia		
Zerga itunduak (FOFEL): Konturako ordainketak 2016.....		146
Zerga itunduak (FOFEL): estatuko laguntza berreskuratuen diru-bilketa		1
Euskal Autonomia Erkidegoa		
Osasun zentroa mantentzeko lanak		2
Bake-epaitegia.....		1
Estatua		
Zerga ez itunduak		1
UDALA GUZTIRA		151

Itunpeko zergetan parte hartzeagatiko sarrerak (FOFEL) diru-bilketa balioespenak oinarri hartuta kalkulaturiko konturako kobrantzei dagozkie, hurrengo urtean kitaturikoak. Aurreko taulan konturako ordainketen zenbatekoa xehatu da, 2016ari dagozkionak.

Arabako toki erakundeen 2008, 2009 eta 2011ko FOFELen likidazio negatiboak geroratu egin zituen AFAk eta dedukzioak egin zituen (urteko kitapen positiboak eta % 2ko dedukzioa udalen funts osagarritik, nagusiki), 2017ra arte AFAk banakakotu ez zituenak, harik eta 2016ko FOFELen likidazioa egin zuen arte. Azken hau positiboa izan zen 612 euroan Udalarentzat eta AFAk Udalak zuen zorrari aplikatu zion, zorra gutxitzeko. Udalen arabera zorra banakotzen duen eranskinaren arabera, era honetara zorra kitatua utzi da. Nolanahi den ere, Arabako udalerriek AFArekin likidazio negatiboengatik duten zorra kitatu gabe zegoen 2016ko abenduaren 31n eta datozen 4 urteetan dedukzioak eragingo ditu 51 arabar udalen FOFELen berariazko funts osagarrian.

Ondare sarrerak

5. kapituluko sarrera nagusiak izan dira El Sotoko lursailen alokairutik eskuratutako 18.810 euro eta lursail horien gaineko bide-zor baten ordainetan jasotako beste 12.020 euro. Azken hau 2007an eratu zen, 25 urteko indarraldiarekin.

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Ondotik Udalaren langile-gastuak xehatu dira:

KONTZEPTUA	Gastua 2016	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 31/12/16
Funtzionarioak (Udal idazkaria % 33)	13	1	1
Lan-kontratu finkoko langileak	37	(*)-	-
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	5	-	4(**)
Ordainsariak guztira	55	1	5
Gizarte Segurantza	16		
UDALA GUZTIRA	71		

(*) LZ funtzionario batekin argitaratu da, baina espedienteko agiriak, gainera, lan kontratu finkodun langile bat barne hartzen du.

(**) denbora osoko lanpostu bat eta beste 3, % 21etik 68ra bitarteko dedikaziokoak.

Udalak langileen soldatak % 1 igo zituen 2015ekoekiko.

2016ko ordainsarietan 3 enplegaturi ordaindutako 1.706 euro barne hartu dira, 2012ko aparteko ordainsariaren % 50aren ordainetan; gainerako kopurua 2015ean ordaindu zen.



Altak-kontratazioak

Ondoko taulan 2016an izan ziren altak zehaztu dira:

	Kontratu eta langile kopurua
MOLDEA	
Titularra zerbitzu-eginkizunetan egoteagatik bitarteko funtzionarioa	1
Aldi-baterako lan kontratuko langileak	2
Obra-kontratua edo zerbitzu jakinekoa	1
Lanpostu hutsa betetzeko bitartekotasuna	1
GUZTIRA	3

A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Hona hemen Udalaren gastuen 2. kapituluaren xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Konponketak eta zaintza	26
Bulegoko materiala	1
Argindarraren horniketa.....	22
Ur hornidura, igerilekuko produktuak eta beste	(*)31
Komunikazioak	2
Erantzukizun zibil, eraikin eta ibilgailuen aseguruak	4
Hainbat gastu	36
Jarduera sozio-kulturalak-festak	35
kirol-jarduerak.....	1
Enpresek egindako lanak	19
Zabor bilketa-Arabako Errioxako Kuadrilla	9
Udaletxea, osasun zentroa eta igerilekuak garbitzea	4
Beste txikiago batzuk (arratoi garbiketa,kalatuen planoak, segurtasuna, e.a.) ..	6
Erregistro Zibila kudeatzeagatik udal langileari osagarria	1
GUZTIRA	142

(*) 8.475 euro barne hartzen ditu uztaile eta abuztuan igerilekuak ustiatzeagatik zerbitzuen kontzeptuan.

Hona hemen 2016ko inbertsioen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Upeltegien auzoan zorua hondoratzea konpontzea.....	12
Erretiratuen tabernan haur-jolasen ekipamendua	8
Alto Ramo mendian luiziagatik lanak	6
Beste txikiago batzuk (El Soto finkan lanak, landa-bideen konponketak, e.a.).....	7
GUZTIRA	33

A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZAK

Gastuen 4. kapitulua xehatuko da ondoren:

		Euroak milakotan
Onuraduna eta diruz lagundutako jarduera		Gastua
TRANSFERENTZIAK		9
Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla: zabor bilketa zerbitzua iraila-azaroa	(*)	3
Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla: gizarte laguntza zerbitzua 2015	(**)	3
Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla: hirigintza zerbitzua 2016 eta artxiboaren kudeaketa 2015	(**)	2
Eltziegoko Udala: ikastetxe publikoaren gastuetan partaidetza-2016ko 1. hiruhilekoa	(**)	1
DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK		3
Parrokia: La Antiguako ama birjina zaharberritzea		1
Erretiratuen elkarte: urteko jarduera		1
Ibondo elkarte: 2016ko Gabonetako jarduerak		1
GUZTIRA		12

(*) Urtariletik abuztura bitarteko ekarpenak 2. kapituluan guztira 9.387 euroren zenbatekoan.

Biasteri-Arabako Errioxako kuadrilla eskualde esparruko foru erakundea da, 63/1989 Foru Arau bidez sorturikoa; nagusiki, FOFELen duen partaidetza bidez finantzatzen da eta udalek erkidetzen edo agintzen dituzten zerbitzuen kontzeptuko udal ekarpenen bidez. Azken hauen zenbatekoa Kuadrillak finkatzen du aleko prezioak oinarri hartuta (edukiontzietan maniobra kopurua eta orduko prezioak) edo gizarte zerbitzuen kasuan, udalerrri bakoitzeko biztanle kopurua hartuta. Kuadrillaren 2016ko kontuek jastzen dute aurrekontu emaitza 117.474 eurorena izan zela eta gastu orokorretarako geldikina 2016ko abenduaren 31n 950.116 eurorena.

A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Ondotik, 2016ko abenduaren 31n tributu bakoitzeko aurrekontuko zor saldoak zehazten dira; baita, aurreko urteetako ere ekitaldian eragindako mugimendua ere:

Kontzeptua	Euroak milakotan					
	Aurrekontu itxiak				2016 aurrek.	
	16/1/1	Kobrantsak	Baliog.	16/12/31	16/12/31	GUZTIRA
Landako ondasun-higiezin gaineko zerga	5	-	-	5	-	5
Hiriko ondasun-higiezin gaineko zerga	10	2	-	8	1	9
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga	5	-	-	5	1	6
Zaborrak biltzeko tasa	2	-	-	2	1	3
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	22	2	-	20	3	23
4. eta 7. kapituluetakoa transf. eta diru-lag.	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	22	2	-	20	3	23

Udalak saldo nekez gauzagarritzat jo du guztira 17.629 euroren zenbatekoa; 2 urtetik gorako antzinatasuna duten saldoak hartzen dira halakotzat.



A.9 AKTIBO EZ KORRONTEA, ONDAREA ETA ZORPETZEA

Ondotik Udalaren balantzeko aktibo ez korronteen osaera eta mugimenduak zehaztuko dira:

Azalpena	Euroak milakotan				Saldoa 16/12/31
	SaldoA 2016/1/1	Kont. Plan. aldaketa	Altak	Amortiz.	
Erabilera orokorrerako azpiegiturak	-	-	-	-	-
Ibilgetu inmateriala	74	-	-	-	74
Ibilgetu materiala	2.856	-	33	-	2.889
-Ibilgetu Inmater. pilatut. amortizazioa	(73)	-	-	(1)	(74)
-Ibilgetu Mater. pilatut. amortizazioa	(1.531)	-	-	(171)	(1.702)
IBILGETUA GUZTIRA	1.326	-	33	(172)	1.187
ERABILERA OROKOR. EMAND. ONDAREA	5.519	(5.519)	-	-	-

2016an udal kontabilitatearen araudia aldatu zen eta irizpide berriak finkatu ziren, nagusiki egoera berezietako aurreko Ondareko kontuetan eragina dutenak; horiek Ibilgetu materialean jaso behar dira, nola eta horien balioa modu finkagarrian ezin den zehaztu eta halakoetan horren berri eman behar da Oroitidazkian. Udalak ez zuen txertatu beharreko saldoaren gaikako xehakapenik eta saldoa erregularizatzea erabaki zuen, Balantzeko Ondare Garbaren lehenagoko ekitaldietako emaitzen kontuaren kontura:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Zenbatekoa	
Aurreko ekitaldietako emaitzen hasierako saldoa	6.791	
Kontuen Planaren aldaketa- Erab. orok. emandako ondarea – saldoaren erregular.	(5.519)	
2015eko galera	(46)	
AURREKO EKITALDIETAKO EMAITZEN AZKEN SALDOA	1.226	

Zorpetzea

Ondoren zorpeko saldoak eta Udalak aurreko urteetan kontrataturiko 2 maileguren eta 2016an indarrean daudenen ezaugarriak xehatu dira:

Erakundea	Euroak milakotan					
	Hasierako zenbatekoalraugipen data		% interesa	16/1/1	Amortiz.	16/12/31
Kutxabank	127	2022	Euribor+0,5	64	9	55
Santander	120	2020	Euribor+0,5	34	8	26
GUZTIRA				98	17	81
	Pasibo korrontea-kreditu etxeekiko zorrak (iraungipena 2017an)					19
	Pasibo ez korrontea-epe luzeko zorrak (iraungipenak 2018-22)					62



A.10 FINANTZA, ONDARE ETA AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

Ondoren, Kontuen Epaitegiaren Tokiko Esparruan Koordinazio Batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek zehaztutako finantza adierazleen hautaketa xehatuko da:

IZENA ETA KALKULUA	(*)2014	(*)2015	2016
Epe laburreko likidezia (funts likidoak eta kobratzeko eskub./pasibo korrontea)	(%) 1.695	2.448	821
Inbertsio ahalegina (6. eta 7. kap. obligazioak/obligazio aitortuak)	(%) 12	12	12
Zalantzako kobragarritasuneko zordunen indizea (zalantz.kobr.saldoa/kobratzekoa)	(%) 39	77	80
Autonomia fiskala (sarrera fiskalak/sarrerak guztira)	(%) 41	36	35
Sarrera arrunten gainean zorpetze finantzarioa (pasibo eskagarria/sarrera arruntak)	(%) 43	28	27
Langile gastuen indizea (langile gastuak/ sarrera arruntak)	(%) 23	21	24
Ekitaldiko finantza zama (3 eta 9 kap. gastua/sarrera arruntak)	(%) 10	9	6
Aurrezki gordinaren indizea (aurrezki gordina/sarrera arruntak)	(%) 24	32	25
Biztanleko finantza zorra (finantza pasibo eskagarria/biztanle kop.)	(euroak) 393	316	263
Biztanleko gastua (obligazio aitortuak/biztanle kop.)	(euroak) 891	981	897
Biztanleko inbertsioa (6 eta 7 kap. obligazioak/biztanle kop.)	(euroak) 105	119	106

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko ekitaldiak.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

BOTHA	Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.
DFA	Diputación Foral de Álava.
FOFEL	Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava.
LRBRL	Ley 7/1985, Reguladora de Bases del Régimen Local.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General de 2016 del Ayuntamiento de Baños de Ebro.

La anterior fiscalización realizada por el TVCP fue la referida al ejercicio 2001.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio fiscalizado, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contabilidad: conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General debe contener la Liquidación del Presupuesto, el Balance de Situación, la Cuenta de Pérdidas y Ganancias y la Memoria del Ayuntamiento.
